



Gobernuak Nafarroako Foru Komunitatean duen Ordezkaritza Lurralde Politikako eta Memoria Demokratikoko Ministerioari atxikita dago, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean esleitutako eginkizun guztiak betetzen ditu, Estatuko Administrazio Orokorraren eta haren lurraldean kokatutako erakunde publikoen zerbitzu guztiak hobetzeko ekimenak koordinatuz, gainbegiratuz eta bultzatuz.

Ematen ditugun zerbitzuak

- | | |
|--|--|
| 1 Herritarrei informazioa eta arreta ematea. | 10 Farmaziako ikuskaritza. |
| 2 Emakumearen aurkako indarkeria. | 11 Kanpo-osasuna. |
| 3 Espainiako etorkinentzako zerbitzuak. | 12 Animalien osasuna: albaiariaren kontrola inportazioa/esportazioa. |
| 4 Enpleguarekin edo emigranteekin lotutako zerbitzuak. | 13 Tasak itzultzea. |
| 5 Atzerriko titulu akademikoak homologatzea/baliokidetzea eta tituluak ematea. | 14 Garraioak. |
| 6 Lehergailuekin eta pirotekniarekin lotutako espedienteak izapidetzea. | 15 Administrazio-zehapenei dagozkien espedienteak. |
| 7 Desjabetzeak. Balio justuaren espedientea izapidetzea. | 16 Administrazio-baimenen eskaerak. |
| 8 Estatuaren esku-hartzea larrialdi edo hondamendi egoeretan. | 17 Enpresentzako eta beste administrazio batzuentzako zerbitzuak. |
| 9 Nazioarteko txertaketa. | 18 Biltzeko eskubidea. |

Kalitate-konpromisoak

- 1 Edozein bide erabiliz jasotako kexei erantzutea, Gobernuak Nafarroako Foru Komunitatean duen Ordezkaritzan sartzen denetik gehienez 15 egun balioduneko epean.
- 2 Eskaera jasotzen denetik gehienez 3 egun balioduneko epean ebaztea Animalien Osasuna Ikuskatzeko espedienteak, betiere kontrol edo dokumentazio osagarriarik eskatzen ez bada.
- 3 Lehergailuak hornitzeko baimen-eskaerak gehienez 3 egun balioduneko epean ebaztea, eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita.
- 4 Behin-behineko tiro-eremuetan tiro-lehiaketak baimentzeko espedienteak 15 egun balioduneko epean ebaztea, eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita.
- 5 Eskaera jasotzen denetik gehienez 5 egun balioduneko epean Hezkuntza Arloan arreta jasotzeko aurretiko hitzordua esleitzea.
- 6 Unibertsitateaz kanpoko atzerriko tituluak homologatzeko eta baliozkotzeko eskabideak izapidetzea, eskaera jasotzen denetik gehienez 30 egun balioduneko epean.
- 7 Atzerrian ondorioak izan nahi dituzten unibertsitate-ikasketa ofizialei dagozkien dokumentu akademikoetan sinadurak aitortzeko eskaerak gehienez 24 orduko epean ebaztea, eskaera eskatutako dokumentazio guztiarekin formalizatzen denetik zenbatzen hasita.
- 8 Larrialdi-egoeren edo hondamendi-egoeren ondoriozko kalteengatik laguntzak eta dirulaguntzak eskatzeko espedienteak bideratzea eta ebaztea, gehienez 120 egun balioduneko epean, eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita, betiere izapideak egiteko behar den dokumentazio guztia izanez gero.
- 9 Itzulitako espainiarren aparteko beharizan-egoerei erantzuteko laguntzen txostena egitea eta espedientea bidaltzea (1493/2007 Errege Dekretua), eskaera jasotzen denetik gehienez ere 4 egun balioduneko epean ebazteko.
- 10 Itzulitako emigranteen ziurtagiriak gehienez 4 egun balioduneko epean ematea, eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita, baldin eta izapideak egiteko behar den dokumentazio guztia badago.
- 11 Informazioa eskatzen duten mezu elektronikoei Herritarrentzako Informazio eta Arreta Bulegoan/Erregistro Arloko Laguntza Bulegoan erantzutea, posta jasotzen denetik 2 egun balioduneko epean.

Kartaren unitate arduraduna:

Gobernuaren Nafarroako Foru Komunitateko Ordezkaritzaren
Idazkaritza Nagusia

Merindadeen plaza z/g - 31003 Iruña
948 979 161

secretaria_general.navarra@correo.gob.es

https://mpt.gob.es/portal/delegaciones_gobierno/



Argitaratzailea: Lurralde Politika eta
Memoria Demokratikoaren Ministerioa
NIPO: 127-24-007-7



Kontsultatu hemen zerbitzuen
kartaren testu osoa